



BASES DEL CONCURSO DE ESCAPARATES DE NAVIDAD 2024

2024KO EGUBERRIETAKO ERAKUSLEIHO LEHIAKETAREN OINARRIAK

HOJA 2.

2024KO EGUBERRIETAKO ERAKUSLEIHO LEHIAKETAREN OINARRIAK

Ermuko Udalak, 2024ko Eguberrietako kanpainaren barruan, Eguberrietako Erakusleiho Lehiaketa deitzen du erosketak bertako merkataritzan sustatzeko, honako oinarri hauekin:

OINARRIAK

LEHENBIZIKOA: Ermuan kokatuta dauden mota guztietako komertziantek, ostalari eta zerbitzuek eman ahalko dute izena.

BIGARRENA: **Izen-emateak** ondorengo posta elektronikoaren bidez egin ahalko dira: izarracentre@udalermua.net **AZAROAREN 24ko 15:00ak baino lehen**, honako datu hauek adierazita:

- 1.- Jabearen izena eta aurkezten den saltokiaren IFZ-a
- 2.- Izen komertziala eta saltoki mota
- 3.- Kokapena (kalea eta zenbakia)
- 4.- Harremanetarako telefonoak (mugikorra eta finkoa)

Datuen babesa. Tratamenduaren arduraduna: Ermuko Udala. Helburua: erakusleiho lehiaketaren kudeaketa. Eskubideak: Datuak eta beste eskubide batzuk eskuratu, zuzendu eta ezabatze eskubidea duzu, udal bulegoetara edo izarracentre@udalermua.net helbidera joz. Informazio gehiagorako: www.ermua.eus webgunearen pribatutasun oharra.

HIRUGARRENA: Epaimahaia honako kide hauek osatuko dute: Ermuko Merkataria eta Ostalarien elkarteko kide batek, Ermuko Udaleko Garapen Ekonomikoko kide batek eta gaian profesionala den batek.

LAUGARRENA: Balorazioa egiterakoan epaimahaiak honakoa hartuko du kontuan: sormena, erakusleioa jartzeko originaltasuna, elementu apaingarriak eta argiztapena.

BOSTGARRENA: Lehiaketara aurkeztutako **erakusleioak ABENDUAREN 2rako egon behar dute jarrita eta URTARRILAREN 7ra arte egongo dira ikusgai.**

SEIGARRENA: Sari bat emango da, forja artistikoan egindako *pispillo-pizpilu eskultura bat*, burdinari lotuta dagoen herriaren lehena eta oraina balioan jarritz bere zuhaitz sinbolikoarekin. Saria epaimahaiak emango du **Gabonetako argiak pizten diren egunean: abenduaren 5ean.**

ZAZPIGARRENA: Lehiaketa aurrera eramateko **gutxienez 6 establezimenduk eman beharko dute izena.**

ZORTZIGARRENA: Epaimahaiak saria hutsik uztea erabaki dezake, laugarren oinarrian adierazi bezala, lehiaketara aurkeztutako proposamenetan elementuek kalitate nahikorik ez dutela ikusten badu.

BEDERATZIGARRENA: Saltoki saritutakoen zerrenda Ermuko Udaleko sare sozialetan eta webean argitaratuko da.

HAMARGARRENA: Lehiaketa honetan parte hartzen duten merkatari eta ostalariek oinarri hauek, osotasunean, onartuko dituzte, baita epaimahaiak hartutako erabakiak ere.